

## 2016KO UZTAILEKO ESKAINTZA TELEMATIKOA – AZALPEN-OHARRA

---

2016ko uztaileko eskaintza telematikoko jarraibideen 1.11 puntuaren interpretazioari buruzko kontsultak ikusita, honakoa argitu behar da:

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Hirugarren Ataleko 1. puntuaren arabera (EHAA, 106, 2011ko ekainaren 6koa), ordezkapenen zerrendetara joko da lanpostu bakanteak betetzeko **Debagoieneko, Mendaroko, Zumarragako eta Lezako ospitaleetan**. Zerbitzu Erakunde horietan, bertan sor daitezkeen bakante edo interinitateak betetzeko, lehentasuna izango dute erakunde horietako ordezkapen-zerrendetan izena eman dutenek. Erakunde horien ordezkapen-zerrendetan inor ez dagoenean, erakunde horietan sortzen diren bakante edo interinitateak dagokion Lurralde Historikoko bakanteen zerrendan izena emanda daukatenei eskainiko zaizkie.

Honek zera esan nahi du:

1. Aurrez aipatutako destinoak -**Debagoieneko, Mendaroko, Zumarragako eta Lezako ospitaleak- lehentasunez** esleituko dira dagokion osasun barrutiko (Araba, Gipuzkoa, Bizkaia) gainerako destinoen aldean.
2. Destino horiek ondoko pertsoneri esleituko zaizkie lehentasunez: **ordezkapen-zerrendetan aipatutako ospitale horiek hautatu dituztenei**.